



Irailak 27, martitzena · Eskolondon 19:00etan

Ana Sagastizabal. Sopranoa - Joana Otxoa de Alaiza. Pianoa

MUSIKEAN · MUSIKA KLASIKOA EAN 2022

EGITARAUA

Sehnsucht, Carl Loewe

Canzonetta, Carl Loewe

The Secrets of the Old, Samuel Barber

Sure on this shining night, Samuel Barber

Ständchen, Schubert/Liszt

Chère nuit, Alfred Bachelet

Ametsetan, Pablo Sorozabal

Der Lindenbaum, Schubert/Liszt

Eccomi in lieta vesta, Vincenzo Bellini

Yo quiero un hombre, Fernández Caballero

Ana Sagastizabal Santolaria, sopranoa:

Bilbotar abeslaria, Bertako Koral Elkartearen hasi eta Londresen antzerki musikalean sakondu zituen ikasketak, The American Musical Theatre izeneko diploma lortu eta 2018an Musikenera sartu zen kantu lirikoa ikastera. Operan interpretazio ugari izan ditu: Serpina, Victoria Eugenia Antzokian; First witch y First woman, Teatro Arriaga Antzokian; Olga, Katuska obran Campos Elíseos Antzokian. Ensemble La Viuda Alegre obran Arriaga Antzokian eta Espainiatik gira. Violeta Babar elefante txikia obran, Madrileko Real Antzokian; Elenco Luna de Miel en El Cairo obran Arriaga Antzokian. Hainbat obretan oratorioa interpretatzen du: Motete Jesu meine Freude, Arimen Besarkada... Gaur egun "Sostenuto Hirukotea"-ren partaidea da. Joshua Edelmanen "Self portrait" proiektuan parte hartzen du ahots bakarlari modura, eta dagoneko bi disko grabatu ditu berarekin. Bere proiektu musikal propioa: "Bai, eurek, neskak izan ziren. Ibilbide bat Antzerki Musikalaren historiari" izenekoa.

Joana Otxoa de Alaiza, pianoa:

Joana Otxoa de Alaiza piano-jotzailea da, ganbera-musikan eta ahots akonpainamenduan espezializatua.

Musikenen, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian ikasi zuen, Ricardo Requejorekin. Ganbera-musikako masterra egin zuen Berlingo Arte Ederren Unibertsitatean. Ildo horretan sakondu du, besteren artean, François Benda, Benedicte Palko eta Frank-Immo Zichnerrekin. Ahots akonpainamendua, berriz, Eric Schneider, Liana Vlad eta Maciej Pikulski maisuekin ikasi du, besteak beste.

Proiektu ugarian parte hartu du pianista laguntzaile eta ganbera-musikako pianista gisa. Hainbat jaialdi eta aretotan aritu da; aipatzekoak dira Bernaola Festival (Gasteiz), Kamermusiek Festival Oudewater (Oudewater, Herbehereak), Donostia Kultura Zikloa, Gasteizko Ganbera Musika Zikloa, Kammermusiksaal Berliner Philharmonie (Berlin, Alemania).



www.hea.eus



EAKO UDALA
BIZKAIA

hea.eus/musikean-2022

eakoudala.eus